

Convenio de Ginebra relativo al trato debido a los prisioneros de guerra

Aprobado el 12 de agosto de 1949 por la Conferencia Diplomática para Elaborar Convenios Internacionales destinados a proteger a las víctimas de la guerra, celebrada en Ginebra del 12 de abril al 12 de agosto de 1949

Entrada en vigor: 21 de octubre de 1950

Título I: Disposiciones generales

Artículo 1

Las Altas Partes Contratantes se comprometen a respetar y a hacer respetar el presente Convenio en todas las circunstancias.

Artículo 2

Aparte de las disposiciones que deben entrar en vigor ya en tiempo de paz, el presente Convenio se aplicará en caso de guerra declarada o de cualquier otro conflicto armado que surja entre dos o varias de las Altas Partes Contratantes, aunque una de ellas no haya reconocido el estado de guerra.

El Convenio se aplicará también en todos los casos de ocupación total o parcial del territorio de una Alta Parte Contratante, aunque tal ocupación no encuentre residencia militar.

Si una de las Potencias en conflicto no es parte en el presente Convenio, las Potencias que son Partes en el mismo estarán, sin embargo, obligadas por el Convenio con respecto a dicha Potencia si ésta acepta y aplica sus disposiciones.

Artículo 3

En caso de conflicto armado que no sea de índole internacional y que surja en el

Gerrako presoiei zor zaien tratuari buruzko Genevako Hitzarmena

Gerraren biktimak babestera zuzendutako Nazioarteko Hitzarmenak moldatzeko, Konferentzia diplomatikoak onetsia, 1949k abuztuaren 12an, Konferentzia hori Genevan egin zela, 1949ko apirilaren 12tik abuztuaren 12ra,

Indarrean jartzea: 1950eko urriaren 21ean

I. Titulua: Xedapen orokorrak

1. artikulua

Alderdi kontratugile gorenak konpromisoa hartzen dute Hitzarmen hau inguruabar guztietan errespetatzeko eta errespetarazteko.

2. artikulua

Bake garaian indarrean jarri behar diren xedapenez gain, Hitzarmen hau aplikatuko da bi alderdi kontratugile gorenaren artean edo zenbaiten artean sor daitekeen gerra adierazpenaren kasuan edo bestelako gatazka armaturen kasuan, alderdietako batek gerra egoera aitortu ez badu ere.

Era berean, Hitzarmena aplikatuko da alderdi kontratugile goren baten lurraldea osotasunean edo zati batean okupatzen denean, okupazio horrek erresistentzia militarrik izan ez arren.

Gatazkan dagoen potentzietako bat Hitzarmen honen alderdi ez bada, Hitzarmenaren alderdi diren potentziak, gatazka horretan sarturik daudenak, behartuta daude alderdi ez den potentzia horri dagokionez, hitzarmena betetzera, potentzia horrek Hitzarmenaren xedapenak onetsi eta aplikatzen baditu.

3. artikulua

Nazioarteko izaera ez duen gatazka armatuaren kasuan, gatazka hori

territorio de una de las Altas Partes Contratantes, cada una de las Partes en conflicto tendrá la obligación de aplicar, como mínimo, las siguientes disposiciones:

1) Las personas que no participen directamente en las hostilidades, incluidos los miembros de las fuerzas armadas que hayan depuesto las armas y las personas puestas fuera de combate por enfermedad, herida, detención o por cualquier otra causa, serán, en todas las circunstancias, tratadas con humanidad, sin distinción alguna de índole desfavorable, basada en la raza, el color, la religión o la creencia, el sexo, el nacimiento o la fortuna, o cualquier otro criterio análogo.

A este respecto, se prohíben, en cualquier tiempo y lugar, por lo que atañe a las personas arriba mencionadas:

- a) los atentados contra la vida y la integridad corporal, especialmente el homicidio en todas sus formas, las mutilaciones, los tratos crueles, la tortura y los suplicios;
- b) la toma de rehenes;
- c) los atentados contra la dignidad personal, especialmente los tratos humillantes y degradantes;
- d) las condenas dictadas y las ejecuciones sin previo juicio ante un tribunal legítimamente constituido, con garantías judiciales reconocidas como indispensables por los pueblos civilizados.

2) Los heridos y los enfermos serán recogidos y asistidos.

Un organismo humanitario imparcial, tal como el Comité Internacional de la Cruz Roja, podrá ofrecer sus servicios a las Partes en conflicto.

Además, las Partes en conflicto harán

alderdi kontratugile gorenetakoren baten lurraldean sortzen dela, gatazkaren alderdi bakoitzak gutxienez ondorengo xedapenak aplikatzeko betebeharra izango du:

1) Liskarretan zuzenean parte hartzen ez duten pertsonak, armak baztertu dituzten indar armatuetako kideak eta gaixotasunagatik, zauriagatik, atxiloketagatik edo beste edozein arrazoiengatik borrokatzeko gai ez diren pertsonak barne, inguruabar guztietan, gizatasunez tratatuko dira, izaera kaltegarria izan dezakeen inolako bereizketarik gabe, bereizketa horren oinarriak badira arraza, kolorea, erlijioa edo sinesmena, sexua, jaiotza edo ondarea, edo antzeko beste edozein irizpide.

Aurrekoari dagokionez, goian aipatutako pertsonen gainean eragina duten neurrian, ondorengoak debekatzen dira, edonoz eta edonon:

- a) bizitzaren eta gorputz-osotasunaren aurkako atentatuak, bereziki erailketa, horren forma guztietan, mutilazioak, tratu ankerrak, tortura eta sufrimenduak;
- b) pertsonak bahiturik hartzea;
- c) duintasun pertsonalaren aurkako atentatuak, batik bat, tratu umiliagarri eta apalesgarriak;
- d) herri zibilizatuek ezinbestekotzat aitortutako berme judizialak dituen zuzenbidearen arabera eraturako auzitegi baten aurrean, epaiketarik egin gabe emandako kondenak eta exekuzioak.

2) Zaurituak eta gaixoak batu eta artatuko dira.

Erakunde humanitario inpartzial batek, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea kasu, gatazkan dauden alderdiei bere zerbitzuak eskaini ahal izango dizkie.

Halaber, gatazkan dauden alderdiek,

lo posible por poner en vigor, mediante acuerdos especiales, la totalidad o parte de las otras disposiciones del presente Convenio.

La aplicación de las anteriores disposiciones no surtirá efectos sobre el estatuto jurídico de las Partes en conflicto.

Artículo 4

A. Son prisioneros de guerra, en el sentido del presente Convenio, las personas que, perteneciendo a una de las siguientes categorías, caigan en poder del enemigo:

- 1) los miembros de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto, así como los miembros de las milicias y de los cuerpos de voluntarios que formen parte de estas fuerzas armadas;
- 2) los miembros de las otras milicias y de los otros cuerpos de voluntarios, incluidos los de movimientos de resistencia organizados, pertenecientes a una de las Partes en conflicto y que actúen fuera o dentro del propio territorio, aunque este territorio esté ocupado, con tal de que estas milicias o estos cuerpos de voluntarios, incluidos estos movimientos de resistencia organizados, reúnan las siguientes condiciones:
 - a) estar mandados por una persona que responda de sus subordinados;
 - b) tener un signo distintivo fijo reconocible a distancia;
 - c) llevar las armas a la vista;
 - d) dirigir sus operaciones de conformidad con las leyes y costumbres de la guerra;
- 3) los miembros de las fuerzas armadas regulares que sigan las instrucciones de un Gobierno o de una autoridad no reconocidos por la Potencia detenedora;

ahal dutena egingo dute, hitzarmen berezien bitartez, Hitzarmen honen beste xedapenak, oso-osorik edo zati batez, indarrean jartzeko.

Aurreko xedapenen aplikazioak ez du eraginik izango gatazkan dauden alderdien estatutu juridikoen gain.

4. artikulua

A. Gerrako presoak dira, Hitzarmen honen esanahian, jarraian aipatuko diren sailetakoko baten kide diren pertsonak, etsaiaren esku jausten direnean:

- 1) gatazkan dagoen alderdi bateko indar armatuen kideak, milizietako kideak eta indar armatu horietako parte diren talde boluntarioen kideak;
- 2) beste milizietako kideak eta beste talde boluntarioen kideak, barne hartuta antolatutako erresistentzia mugimenduenak, baldin eta, horiek gatazkan dauden alderdietako batenak badira eta euren lurraldeen kanpo aldean zein barne aldean dihardutenak, lurralde hori okupatuta egon arren, betiere milizia edo talde boluntario horiek, antolatutako erresistentzia mugimenduek barne, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:
 - a) bere menpekoengatik erantzuten duen pertsona bat izatea taldearen buru;
 - b) urrutitik ezagutzeko modukoa den ikur bereizgarri iraunkorra izatea;
 - c) armak agerian eramatea;
 - d) gerraren legeekin eta ohiturekin bat datozen eragiketak egitea;
- 3) erregeladun indar armatuen kideak, atxiloketa egin duen potentziak aitortu gabeko gobernu baten edo agintaritzaren baten jarraibideen menera ari direnak;

4) las personas que sigan a las fuerzas armadas sin formar realmente parte integrante de ellas, tales como los miembros civiles de tripulaciones de aviones militares, corresponsales de guerra, proveedores, miembros de unidades de trabajo o de servicios encargados del bienestar de los militares, a condición de que hayan recibido autorización de las fuerzas armadas a las cuales acompañan, teniendo éstas la obligación de proporcionarles, con tal finalidad, una tarjeta de identidad similar al modelo adjunto;

5) los miembros de las tripulaciones, incluidos los patronos, los pilotos y los grumetes de la marina mercante, y las tripulaciones de la aviación civil de las Partes en conflicto que no se beneficien de un trato más favorable en virtud de otras disposiciones del derecho internacional;

6) la población de un territorio no ocupado que, al acercarse el enemigo, tome espontáneamente las armas para combatir contra las tropas invasoras, sin haber tenido tiempo para constituirse en fuerzas armadas regulares, si lleva las armas a la vista y respeta las leyes y las costumbres de la guerra.

B. Se beneficiarán también del trato reservado en el presente Convenio a los prisioneros de guerra:

1) las personas que pertenezcan o hayan pertenecido a las fuerzas armadas del país ocupado, si, por razón de esta pertenencia, la Potencia ocupante, aunque inicialmente las haya liberado mientras proseguían las hostilidades fuera del territorio que ocupa, considera necesario internarlas, especialmente tras una tentativa fracasada de estas personas para incorporarse a las fuerzas armadas a

4) indar armatuen atzetik doazen pertsonak, horiek partaideak izan gabe, hala nola, hegazkin militarretako tripulazioaren kide zibilak, gerra-berriemaileak, hornitzaileak, militarren ongizateaz arduratzen diren lan- edo zerbitzu-unitateen kideak, baldin eta zein indar armaturi laguntza eman eta indar armatu horren baimena jaso badute; indar armatu horien betebeharra da, xede horretarako, testu honi eransten zaion ereduaren antzeko nortasun-txartela ematea;

5) tripulazioetako kideak, barne hartuta patrioiak, pilotuak eta merkataritzako marinaren itsasmutilak, eta gatazkaren alderdien abiazio zibilen tripulazioak, baldin eta horiek ez badute, nazioarteko zuzenbidearen beste xedapen batzuen arabera, tratu onuragarriagorik;

6) okupatuta ez dagoen lurralde bateko biztanleria, etsaia hurreratzen denean, bat-batean eta bere kautan armada erasotzaileei aurre egiteko armak hartzen dituenak, erregeladun indar armatu gisa eratzeko denborarik izan ez duena baldin eta armak agerian eramaten baditu eta gerrako legeak eta ohiturak errespetatzen baditu.

B. Ondorengoek ere Hitzarmen honetan gerrako presoentzat erreserbatutako tratua erreserbatutako tratua jasoko dute:

1) herrialde okupatua zein izan eta horren indar armatuetako partaide diren edo izan diren pertsonak, baldin eta partaidetza horrengatik, potentzia okupatzaileak, hasieran horiek aske utzi arren, gerora pertsona horiek barneratzea beharrezkoa ikusten badu, gehienbat pertsona horiek zein indar armatuetako partaide izan eta horietan berriro sartzeko ahaleginak huts egin ondoren, indar armatu horiek borrokan

las que pertenezcan y que estén combatiendo, o cuando hagan caso omiso de una intimidación que les haga por lo que atañe a su internamiento;

2) las personas que pertenezcan a una de las categorías enumeradas en el presente artículo que hayan sido recibidas en su territorio por Potencias neutrales o no beligerantes, y a quienes éstas tengan la obligación de internar en virtud del derecho internacional, sin perjuicio de un trato más favorable que dichas Potencias juzguen oportuno concederles, exceptuando las disposiciones de los artículos 8, 10, 15, 30, párrafo quinto, 58 a 67 incluidos, 92 y 126, así como las disposiciones relativas a la Potencia protectora, cuando entre las Partes en conflicto y la Potencia neutral o no beligerante interesada haya relaciones diplomáticas.

Cuando haya tales relaciones, las Partes en conflicto de las que dependan esas personas estarán autorizadas a ejercer, con respecto a ellas, las funciones que en el presente Convenio se asignan a las Potencias protectoras, sin perjuicio de las que dichas Partes ejerzan normalmente de conformidad con los usos y los tratados diplomáticos y consulares.

C. El presente artículo no afecta al estatuto del personal sanitario y religioso, como se estipula en el artículo 33 del presente Convenio.

Artículo 5

El presente Convenio se aplicará a las personas mencionadas en el artículo 4 a partir del momento en que caigan en poder del enemigo y hasta su liberación y su repatriación definitiva.

Si hay duda por lo que respecta a la pertenencia a una de las categorías

ari direla orain ere, edota euren barneratzeari buruz egiten zaien larderiari jaramonik egiten ez diotenean;

2) artikulu honetan zerrendatutako sail batean dauden pertsonak, potentzia neutralek edo gerra-egile ez direnek euren lurraldean hartu badituzte, eta nazioarteko zuzenbidearen arabera, pertsona horiek barneratzeko betebeharra badute potentzia horiek. Horrek guztiorrek ez dio kalterik egingo potentzia horiek tratatu onuragarriagoa emateari pertsona horiei, halakoa egoki irizten bazaie, betiere salbuetsita 8, 10, 15, 30, bosgarren paragrafoa, 58tik 67artekoak, biak barne, eta 92 eta 126. artikuluetako xedapenak; era berean, potentzia babeslearen inguruko xedapenak, gatazkan dauden alderdien artean eta potentzia neutralaren edo gerra egile ez den potentzia interesdunaren artean, diplomazia harremanak daudenean.

Halako harremanak badaude, orduan, gatazkan dauden alderdien menpeko pertsonak baimena izango dute, eurei dagokienez, Hitzarmen honetan potentzia babesleei esleitzen zaizkien zereginak egikaritzeko, alderdi horiek ohiz egikaritzen dituzten usadio eta hitzarmen diplomatiko eta kontsul izaerakoan arabera kalerik egin gabe.

C. Artikulu honek ez du eraginik izango osasun arloko edo erlijio arloko langileen gain, Hitzarmen honen 33. artikuluan ezartzen den bezala.

5. artikulua

Hitzarmen hau aplikatuko zaie 4. artikuluan aipatutako pertsonari, etsaiaren esku jausten diren unetik eta horiek askatu eta behin betiko aberriratu arte.

Zalantzarik izanez gero, gerra-egintzaren bat gauzatutako pertsonak

enumeradas en el artículo 4 de las personas que hayan cometido un acto de beligerancia y que hayan caído en poder del enemigo, dichas personas se benefician de la protección del presente Convenio, en espera de que un tribunal competente haya determinado su estatuto.

Artículo 6

Aparte de los acuerdos expresamente previstos en los artículos 10, 23, 28, 33, 60, 65, 66, 67, 72, 73, 75, 109, 110, 118, 119, 122 y 132, las Altas Partes Contratantes podrán concertar otros acuerdos especiales sobre cualquier cuestión que les parezca oportuno zanjar particularmente.

Ningún acuerdo especial podrá perjudicar a la situación de los prisioneros, tal como se reglamenta en el presente Convenio, ni restringir los derechos que en éste se les otorga.

Los prisioneros de guerra seguirán beneficiándose de estos acuerdos mientras el Convenio les sea aplicable, salvo estipulaciones en contrario expresamente consignadas en dichos acuerdos o en acuerdos ulteriores, o también, salvo medidas más favorables tomadas a su respecto por una u otra de las Partes en conflicto.

Artículo 7

Los prisioneros de guerra no podrán, en ninguna circunstancia, renunciar parcial o totalmente a los derechos que se les otorga en el presente Convenio y, llegado el caso, en los acuerdos especiales a que se refiere el artículo anterior.

Artículo 8

El presente Convenio será aplicado con la colaboración y bajo el control de las Potencias protectoras encargadas de salvaguardar los intereses de las Partes en conflicto.

eta etsaiaren menpe erori direnak, 4. artikuluan zerrendatutako sailetako bateko kide diren ala ez, pertsona horiek Hitzarmen honen babesa izango dute, auzitegi eskudun batek euren estatutua zehazten duen bitartean.

6. artikulua

10, 23, 28, 33, 60, 65, 66, 67, 72, 73, 75, 109, 110, 118, 119, 122 eta 132. artikuluetan beren-beregi ezarritako akordioez gain, alderdi kontratugile gorenek beste akordio berezi batzuk hitzar ditzakete euren arteko beste edozein gairen inguruan, gai horiek hala konpontzea beharrezko dela uste dutenean.

Akordio bereziek ezin izango dute presoan egoera kaltetu, Hitzarmen honetan arautzen den bezala, ezta Hitzarmen honetan ematen zaizkien eskubideak ere murriztu.

Gerrako presoek akordio hauen onurak izango dituzte Hitzarmena aplikagarri zaien heinean, oraingo akordioetan zein geroagoko akordioetan, bereziki jasotako kontrako hizpaketak izan ezik; halaber, gatazkan dauden alderdietako batek edo besteak eurentzat neurri onuragarriagoak har ditzake.

7. artikulua

Gerrako presoek ezin izango diete, inolako inguruabarretan, Hitzarmen honetan ematen zaizkien eskubideei, oso-osoan edo zati batean, uko egin eta, hala denean, aurreko artikulua aipatutako akordio berezietan jasotako eskubideei ere.

8. artikulua

Hitzarmen hau gatazkan dauden alderdien interesak babesteko ardura duten potentzia babesleen lankidetzarekin eta horien kontrolpean aplikatuko da.

Para ello, las Potencias protectoras podrán designar, aparte de su personal diplomático o consular, a delegados de entre los propios súbditos o de entre los de otras Potencias neutrales.

Estos delegados serán sometidos a la aprobación de la Potencia ante la cual hayan de efectuar su misión.

Las Partes en conflicto facilitarán, en la mayor medida posible, la labor de los representantes o delegados de las Potencias protectoras.

Los representantes o delegados de las Potencias protectoras nunca deberán extralimitarse en la misión que se les asigna en el presente Convenio; habrán de tener en cuenta, especialmente, las imperiosas necesidades de seguridad del Estado ante el cual ejercen sus funciones.

Artículo 9

Las disposiciones del presente Convenio no son óbice para las actividades humanitarias que el Comité Internacional de la Cruz Roja, u otro organismo humanitario imparcial, emprenda para la protección de los prisioneros de guerra, así como para los socorros que, con el consentimiento de las Partes en conflicto interesadas, se les proporcione.

Artículo 10

Las Altas Partes Contratantes podrán convenir, en todo tiempo, en confiar a un organismo que ofrezca todas las garantías de imparcialidad y de eficacia, las tareas asignadas en el presente Convenio a las Potencias protectoras.

Si prisioneros de guerra no se benefician, o ya no se benefician, sea por la razón que fuere, de las actividades de una Potencia protectora o de un organismo designado de conformidad con lo estipulado en el

Horretarako, potentzia babesleek, euren diplomazia edo kontsulatuetaiko langileez gain, ordezkariak izenda ditzakete euren herritarren artean edo beste potentzia neutral batzuen herritarren artean.

Ordezkari horiek zein potentziaren aurrean burutu behar euren eginkizuna eta horien onspena jaso beharko dute.

Gatazkan dauden alderdiek ahalik eta neurri zabalenean erraztuko dute potentzia babesleen ordezkari eta eskuordeen lana.

Potentzia babesleen ordezkariak nahiz eskuordeek ezin izango dute sekula Hitzarmen honetan ematen zaien eginkizunaren neurririk gaintitu; kontuan izan beharko dute, bereziki, euren zereginak gauzatzen dituzten estatuaren ezinbesteko segurtasun beharrianak.

9. artikulua

Hitzarmen honen xedapenak ez dira oztopo Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak, edo beste erakunde humanitario inpartzial batek, gerrako presoek babeserako has ditzaketen egintza humanitarioentzat, ezta gatazkan dauden alderdi interesdunen baimenarekin haiei eman dakizkieken sorospententzat.

10. artikulua

Alderdi kontratugile gorenek, une oro, adostu ahal izango dute Hitzarmen honetan potentzia babesleei esleitutako zereginak inpartzialtasun eta eragingarritasun berme guztiak eskaintzen dituen erakunde baten esku uztea.

Gerrako presoek, edozein arrazoi dela bide, potentzia babesle baten egintzen edo aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera izendatutako erakunde baten egintzen onurak jaso ez badituzte, edo dagoeneko jasotzen ez badituzte,

párrafo anterior, la Potencia detenedora deberá solicitar, sea a un Estado neutral sea a tal organismo, que asuma las funciones asignadas en el presente Convenio a las Potencias protectoras designadas por las Partes en conflicto.

Si no puede conseguirse así una protección, la Potencia detenedora deberá solicitar a un organismo humanitario, tal como el Comité Internacional de la Cruz Roja, que se encargue de desempeñar las tareas humanitarias asignadas en el presente Convenio a las Potencias protectoras, o deberá aceptar, a reserva de las disposiciones del presente artículo, los ofrecimientos de servicios de tal organismo.

Cualquier Potencia neutral o cualquier organismo invitado por la Potencia interesada o que se ofrezca con la finalidad indicada deberá percatarse de su responsabilidad para con la Parte en conflicto a la que pertenezcan las personas protegidas por el presente Convenio, y deberá dar suficientes garantías de capacidad para asumir el cometido de que se trata y para desempeñarlo con imparcialidad.

No podrán derogarse las disposiciones anteriores por acuerdo particular entre Potencias cuando una de ellas se vea, aunque sea temporalmente, limitada en su libertad para negociar con respecto a la otra Potencia o a sus aliados, a causa de acontecimientos militares, especialmente en caso de ocupación de la totalidad o de una parte importante de su territorio.

Cuantas veces se menciona en el presente Convenio a la Potencia protectora, tal mención designa, asimismo, a los organismos que la sustituyan en el sentido de este artículo.

Artículo 11

Siempre que lo juzguen conveniente en

atxiloketa egin duen potentziak estatu neutral bati edo delako erakundeari eskatu beharko die, gatazkan dauden alderdiek izendatutako potentzia babesleei Hitzarmen honek esleitutako zereginak beregana ditzaten.

Bide hori erabilita ezin bada babesik lortu, atxiloketa egin duen potentziak, erakunde humanitario bati, kasu, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari, eskatu beharko dio potentzia babesleari Hitzarmen honek esleitutako eginkizun humanitarioak bete ditzan, edo erakunde horren zerbitzu eskaintzak onartu beharko ditu, artikuluko honetako xedapenei kalterik egin gabe.

Edozein potentzia neutral edo potentzia interesdunak gonbidatutako edozein erakunde edo aipatutako helburuarekin eskaintzen den erakundeak, Hitzarmen honek babesten dituen pertsonak zein gatazka alderdikoak izan eta gatazka alderdi horrekiko duen erantzukizunaz ohartu beharko da. Era berean, berme nahikoa eman beharko du zeregin hori bereganatzeko eta inpartzialtasunaz gauzatzeko.

Ezin izango dira aurreko xedapenak indargabetu potentzien arteko akordio berezien bidez, horietako batek mugatuta badu bere askatasuna, aldi baterako bada ere, beste potentziarekin edo bere aliatuekin negoziatzeko, gertakizun militarrek direla eta, bereziki, bere lurraldea oso-osorik edo zati handi batean okupatua izan den kasuetan.

Hitzarmen honetan potentzia babeslea aipatzen den aldi oro, aipamen horrek izendatzen ditu, orobat, artikuluko honen esanguran potentzia babeslea ordezkatzeko duten erakundeak.

11. artikulua

Pertsona babestuen intereserako

interés de las personas protegidas, especialmente en caso de desacuerdo entre las Partes en conflicto acerca de la aplicación o la interpretación de las disposiciones del presente Convenio, las Potencias protectoras prestarán sus buenos oficios para dirimir el litigio.

Con esta finalidad, cada una de las Potencias protectoras podrá, tras invitación de una Parte, o por propia iniciativa, proponer a las Partes en conflicto una reunión de sus representantes y, en particular, de las autoridades encargadas de los prisioneros de guerra, si es posible en un territorio neutral convenientemente elegido.

Las Partes en conflicto tendrán la obligación de aceptar las propuestas que en tal sentido se les haga.

Las Potencias protectoras podrán, llegado el caso, proponer a la aprobación de las Partes en conflicto una personalidad perteneciente a una Potencia neutral, o una personalidad delegada por el Comité Internacional de la Cruz Roja, que será invitada a participar en la reunión.

Título II: Protección general de los prisioneros de guerra

Artículo 12

Los prisioneros de guerra están en poder de la Potencia enemiga, y no de los individuos o de los cuerpos de tropa que los hayan capturado.

Independientemente de las responsabilidades individuales que pueda haber, la Potencia detenedora es responsable del trato que reciban.

Los prisioneros de guerra no pueden ser transferidos por la Potencia detenedora más que a otra Potencia que sea Parte en el Convenio y cuando la Potencia detenedora se haya cerciorado de que la otra Potencia

egokia dela iritzi duten bakoitzean, bereziki gatazkan dauden alderdiak ados jartzen ez direnean Hitzarmen honen xedapenen aplikazio edo interpretazioaren inguruan, potentzia babesleek euren jardunbide egokiak emango dizkiete auzia ebazteko.

Helburu horrekin, potentzia babesle bakoitzak aukera izango du, alderdietako baten gonbidapenaren ondoren, edo bere ekimenez, gatazkan dauden alderdiei proposatzeko euren ordezkarien bilera bat, batez ere, gerrako presoek arduratzen diren agintariena, ahal bada, behar bezala aukeratutako lurralde neutral batean egitekoa.

Gatazkan dauden alderdiek, zentzu horretan egiten zaizkien proposamenak onartzeko betebeharra izango dute.

Potentzia babesleek aukera izango dute, hala denean, gatazkan dauden alderdien onespeneraren menpe, potentzia neutralaren herritarra den sona handiko pertsona proposatzeko edo Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak eskuordetutako pertsona aipatua; pertsona horri bileran parte hartzeko gonbitea luzatuko zaió.

II. Titulua: Gerrako presoek babes orokorra

12. artikulua

Gerrako presoak potentzia etsaiaren esku daude, eta ez eurok harrapatu dituzten norbanako edo tropa taldeen esku.

Egon daitezkeen banakako erantzukizunez gain, atxiloketa gauzatu duen potentzia da presoek jaso dezaketzen tratua erantzule.

Atxiloketa egin duten potentziak ezin ditu gerrako presoak eskualdatu, ez bada Hitzarmenean alderdi den beste potentzia bati; eta atxiloketa egin duen potentziak egiaztatu duenean beste potentzia horrek Hitzarmena aplikatu

desea y puede aplicar el Convenio. Cuando los prisioneros hayan sido así transferidos, la responsabilidad de la aplicación del Convenio incumbirá a la Potencia que haya aceptado acogerlos durante el tiempo que se le confíen. Sin embargo, en el caso de que esta Potencia incumpla sus obligaciones de aplicar las disposiciones del Convenio en cualquier punto importante, la Potencia que haya transferido a los prisioneros de guerra deberá, tras haber recibido una notificación de la Potencia protectora, tomar medidas eficaces para remediar la situación, o solicitar que le sean devueltos los prisioneros de guerra. Habrá de satisfacerse tal solicitud.

Artículo 13

Los prisioneros de guerra deberán ser tratados humanamente en todas las circunstancias.

Está prohibido y será considerado como infracción grave contra el presente Convenio, todo acto ilícito o toda omisión ilícita por parte de la Potencia detenedora, que comporte la muerte o ponga en grave peligro la salud de un prisionero de guerra en su poder.

En particular, ningún prisionero de guerra podrá ser sometido a mutilaciones físicas o a experimentos médicos o científicos, sea cual fuere su índole, que no se justifiquen por el tratamiento médico del prisionero concernido, y que no sean por su bien.

Asimismo, los prisioneros de guerra deberán ser protegidos en todo tiempo, especialmente contra todo acto de violencia o de intimidación, contra los insultos y la curiosidad pública.

Están prohibidas las medidas de represalia contra ellos.

nahi eta ahal duela.

Presoak horrela esku aldatuak izan direnean, Hitzarmena aplikatzeko erantzukizuna presoak hartzea onartu duen potentziarena izango da, horiek bere esku dauden bitartean.

Hala ere, potentzia horrek Hitzarmenenaren xedapenak aplikatzeko bere betebeharra betetzen ez badu, edozein puntu garrantzitsutan, orduan, gerrako presoak eskualdatu dituen potentziak, potentzia babeslearen jakinarazpena jaso eta gero, egoera konpontzeko neurri eragingarriak hartu beharko ditu, edota gerrako presoak berari itzultzea eskatu beharko du.

Eskaera horri baietza eman beharko zaio.

13. artikulua

Gerrako presoak gizalegez tratatuko dira inguruabar guztietan.

Debekatuta dago eta Hitzarmen honen aurkako arau-hauste larritzat hartuko da, atxiloketa egin duen potentziak gauzatutako bidegabeko egintza oro eta bidegabeko ez-egite oro, baldin eta egintza horiek bere esku dagoen gerrako preso baten heriotza eragiten badute edo horren osasuna arrisku larrian jartzen badute.

Hainbatez, gerrako presoei ezin izango zaie mutilazio fisikorik egin edo eurekin mediku- edo zientzia-esperimenturik egin, horien izaera edozein izanik ere, presoak duen mediku-tratamenduak hori justifikatzen ez badu, eta horren onerako ez badira.

Era berean, gerrako presoak une oro babestu behar dira, batik bat, indarkeria edo larderia egintza guztien aurka, irainen eta jendearen jakin-minaren aurka.

Presoen aurkako errepresalia-neurriak debekatuta daude.

Artículo 14

Los prisioneros de guerra tienen derecho, en todas las circunstancias, al respeto de su persona y de su honor.

Las mujeres deben ser tratadas con todas las consideraciones debidas a su sexo y, en todo caso, se beneficiarán de un trato tan favorable como el que reciban los hombres.

Los prisioneros de guerra conservarán su plena capacidad civil tal como era cuando fueron capturados.

La Potencia detenedora no podrá limitar el ejercicio de esa capacidad, sea en su territorio sea fuera del mismo, más que en la medida requerida por el cautiverio.

Artículo 15

La Potencia detenedora de los prisioneros de guerra está obligada a atender gratuitamente a su manutención y a proporcionarles gratuitamente la asistencia médica que su estado de salud requiera.

Artículo 16

Habida cuenta de las disposiciones del presente Convenio relativas a la graduación así como al sexo, y sin perjuicio del trato privilegiado que puedan recibir los prisioneros de guerra a causa de su estado de salud, de su edad o de sus aptitudes profesionales, todos los prisioneros deberán ser tratados de la misma manera por la Potencia detenedora, sin distinción alguna de índole desfavorable de raza, de nacionalidad, de religión, de opiniones políticas u otras, fundadas en criterios análogos.

Título III: Cautiverio

Sección I: Comienzo del cautiverio

Artículo 17

El prisionero de guerra no tendrá obligación de declarar, cuando se le

14. artikulua

Gerrako presoek eskubidea dute, inguruabar guztietan, euren pertsonaren eta euren ohorearen errespeturako.

Emakumeak bere sexuari zor zaizkion begirune guztien arabera tratatu beharko dira eta, edozein kasutan ere, gizonak jasotzen duten besteko tratatu onuragarria jasoko dute.

Gerrako presoek euren gaitasun zibil osoa gordeko dute, noiz harrapatuak izan eta orduan zuten berbera.

Atxiloketa egin duen potentziak ezin izango du gaitasun horren egikaritza mugatu, gatibualdiak eskatzen duen neurrian baino harago, dela bere lurraldean, dela hortik kanpo ere.

15. artikulua

Gerrako presoak atxilotzen dituen potentziaren kontura izango dira horien mantenua eta baita euren osasun egoerak behar duen dohaineko medikugantzak ere.

16. artikulua

Kontuan izanik Hitzarmen honek xedatutakoa mailakatze eta sexuaren inguruan, eta osasun egoera, adina edo bere lanbide-gaitasunengatik gerrako presoek jaso dezaketan tratatu lehenetsiari kalterik egin gabe, atxiloketa egin duen potentziak modu berean tratatuko ditu preso guztiak, izaera kaltegarri duen inolako bereizketarik egin gabe, arraza, naziotasun, erlijio, iritzi politiko edo bestelakoak, edota antzeko irizpideetan oinarritutakoak.

III. Titulua Gatibualdia

I. Atala: Gatibualdiaren hasiera

17. artikulua

Gerrako presoari galdeketa eginez gero, horrek ez du izango betebeharririk,

interrogue a este respecto, más que sus nombres y apellidos, su graduación, la fecha de su nacimiento y su número de matrícula o, a falta de éste, una indicación equivalente.

En el caso de que infrinja voluntariamente esta norma, correrá el peligro de exponerse a una restricción de las ventajas otorgadas a los prisioneros de su graduación o estatuto.

Cada una de las Partes en conflicto estará obligada a proporcionar a toda persona bajo su jurisdicción, que pueda convertirse en prisionero de guerra, una tarjeta de identidad en la que consten sus nombres, apellidos y graduación, el número de matrícula o indicación equivalente y la fecha de su nacimiento.

Esta tarjeta de identidad podrá llevar, además de la firma o las huellas digitales, o las dos, cualquier otra indicación que las Partes en conflicto puedan desear añadir por lo que respecta a las personas pertenecientes a sus fuerzas armadas.

Dentro de lo posible, medirá 6,5 x 10 cm y se expedirá en doble ejemplar.

El prisionero de guerra deberá presentar esta tarjeta de identidad siempre que se le solicite, pero en ningún caso podrá privársele de ella.

No se podrá infligir a los prisioneros de guerra tortura física o moral ni presión alguna para obtener datos de la índole que fueren.

Los prisioneros que se nieguen a responder no podrán ser amenazados ni insultados ni expuestos a molestias o desventajas de ningún género.

Los prisioneros de guerra que, por razón de su estado físico o mental, sean incapaces de dar su identidad, serán confiados al Servicio de Sanidad.

ondorengo datuak baino deklaratzeko, hala nola, izen-abizenak, graduazioa, jaioteguna eta bere matrikula-zenbakia edo, hori ezean, horren baliokide bat.

Arau hori hala nahita hausten badu, bere maila edo estatutuko presoei emandako abantailen murrizketa izateko arriskua izango du.

Gatazkan dagoen alderdietako bakoitza behartuta egongo da bere jurisdikziopean dauden pertsona guztiei nortasun-txartel bat ematera, pertsona horiek gerrako preso bihurtzeko daitezkeenean. Txartel horretan ondorengo datuak agertuko dira: izen-abizenak eta graduazioa, matrikula-zenbakia edo baliokidea eta jaioteguna.

Nortasun-txartel horrek jaso dezake, sinadura edo hatz-markak, edo biak, eta gatazkan dauden alderdiek euren indar armatuetako kideei dagokienean, jasotzea nahi izan dezaketenean beste edozein argibide.

Ahal den neurrian, horrek 6,5 x 10 zm. neurtuko du eta bi ale luzatuko dira.

Gerrako presoak nortasun-txartel hori eskatzen zaion bakoitzean erakutsi beharko du, eta inola ere ezin izango zaio txartel hori kendu.

Gerrako presoei ezin izango zaie tortura fisikorik edo moralik egin, ezta inolako presiorik ere, edozein izaerako datuak lortzeko xedearekin.

Erantzutera ukatzen diren presoak ezin izango dira mehatxatu ezta iraindu ere, ezta edozein motatako eragozpen edo desabantailarik jasateko arriskuan jarri ere.

Egoera fisiko edo mentalari dagokionez, euren buruak identifikatzeko gai ez diren gerrako presoak Osasun Zerbitzuaren esku utziko dira.

Se determinará, por todos los medios posibles, la identidad de estos prisioneros, a reserva de las disposiciones del párrafo anterior.

El interrogatorio de los prisioneros de guerra tendrá lugar en un idioma que comprendan.

Artículo 18

Todos los efectos y los objetos de uso personal -- excepto las armas, los caballos, el equipo militar y los documentos militares -- quedarán en poder de los prisioneros de guerra, así como los cascos metálicos, las caretas antigás y los demás artículos que se les haya entregado para la protección personal.

Quedarán también en su poder los efectos y objetos que sirvan para vestirse y alimentarse, aunque tales efectos y objetos pertenezcan al equipo militar oficial.

Nunca deberá faltar a los prisioneros de guerra el respectivo documento de identidad.

La Potencia detenedora se lo proporcionará a quienes no lo tengan.

No se podrán retirar a los prisioneros de guerra las insignias de graduación ni de nacionalidad, las condecoraciones ni, especialmente, los objetos que tengan valor personal o sentimental.

Las cantidades de dinero de que sean portadores los prisioneros de guerra no les podrán ser retiradas más que por orden de un oficial y tras haberse consignado en un registro especial el importe de tales cantidades, así como las señas del poseedor, y tras haberse entregado un recibo detallado en el que figuren, bien legibles, el nombre, la graduación y la unidad de la persona que expida dicho recibo.

Las cantidades en moneda de la Potencia detenedora o que, tras solicitud del prisionero, sean

Preso horien nortasuna zehazteko ahal diren baliabide guztiak erabiliko dira, aurreko paragrafoko xedapenei kalterik egin gabe.

Gerrako presoek galdeketa euren ulertzen duten hizkuntza batean egingo da.

18. artikulua

Norberaren erabilerarako gauzak eta objektuak --armak, zaldiak, tresna militarrek eta agiri militarrek salbu-- gerrako presoen esku geldituko dira, bai eta metalezko kaskoak, gasaren aurkako aurpegi-babesak eta norberaren babeserako eman zaizkien gainontzeko gaiak.

Presoen esku geldituko dira, baita ere, jantziak eta elikagaiak, gai eta objektu horiek tresna militar ofizialen osagai izan arren.

Gerrako presoek beti izango dute nortasun-agiria.

Atxiloketa egiten duten potentziak emango dio horrelakorik ez duenari.

Gerrako presoek ezin izango zaizkie kendu graduazio-bereizgarriak ez naziokotasunik, ez kondekoraziorik, ezta, bereziki, balio pertsonal edo sentimentala duten objekturik.

Gerrako presoek daramaten diru kopuruak bakar-bakarrik kenduko zaizkie ofizial batek, horretako agindua ematen duenean eta kopuru horien zenbatekoa eta edukitzearen datuak erregistro berezi batean gordailutu ondoren, eta ordainagiri zehatz bat eman ondoren; biltzen dituen, ondo irakurtzeko moduan, agiri hori egiten duen pertsonaren izen-abizenak, graduazioa eta unitatea.

Atxiloketa egin duen potentziaren monetan dauden kopuruak edo, presoak eskatuta, moneta horretara

convertidas en esa moneda, se ingresarán, de conformidad con el artículo 64, en la cuenta del prisionero.

La Potencia detenedora no podrá retirar a los prisioneros de guerra objetos de valor más que por razones de seguridad.

En tales casos, se seguirá el mismo procedimiento que para retirar cantidades de dinero.

Estos objetos, así como las cantidades retiradas en moneda distinta a la de la Potencia detenedora y cuyo poseedor no haya solicitado el respectivo cambio, deberá guardarlos esa Potencia y los recibirá el prisionero, en su forma inicial, al término del cautiverio.

Artículo 19

Los prisioneros de guerra serán evacuados, en el más breve plazo posible después de haber sido capturados, hacia campamentos situados lo bastante lejos de la zona de combate como para no correr peligro.

Sólo se podrá retener, temporalmente, en una zona peligrosa a los prisioneros de guerra que, a causa de heridas o enfermedad, corran más peligro siendo evacuados que permaneciendo donde están.

Los prisioneros de guerra no serán expuestos inútilmente a peligros mientras esperan su evacuación de una zona de combate.

Artículo 20

La evacuación de los prisioneros de guerra se efectuará siempre con humanidad y en condiciones similares a las de los desplazamientos de las tropas de la Potencia detenedora.

La Potencia detenedora proporcionará a los prisioneros de guerra evacuados agua potable y alimentos en cantidad suficiente, así como ropa y la necesaria asistencia médica; tomará las oportunas precauciones para garantizar

bihurtu direnak, presoaren kontuan sartuko dira, 64. artikularekin bat etorriz.

Atxiloketa egiten duen potentziak ezin izango dizkie gerrako presoari baliozko objektuak kendu, segurtasun arrazoiengatik ez bada.

Halako kasuetan, diru kopuruak kentzeko erabiltzen den prozedura berbera jarraituko da.

Objektu horiek eta atxiloketa egin duen potentziaren dirua ez den kendutako diru kopuruak, horien jabeak eskatu ez badu diru aldaketarik, potentzia horrek gorde beharko ditu eta presoak gatibualdia amaitzen denean jasoko du jatorrizko dirua.

19. artikulua

Gerrako presoak, harrapatuak izan eta ahalik eta azkarren, arriskurik ez izateko borroka gunetik aski urruti kokatutako kanpamenduetara eramango dira.

Gerrako presoak bakar-bakarrik atxiki ahal izango dira gune arriskutsu batean, aldi baterako, zauri edo gaixotasunen ondorioz, beraiantzako dauden tokian gelditzea baino arriskutsua denean bertatik eramatea.

Gerrako presoak ez dira alferrik arriskuan jarriko borroka gune batetik ateratzeko zain dauden bitartean.

20. artikulua

Gerrako presoen ebakuazioa beti gizatasunez eta atxiloketa gauzatu duen potentziaren tropen lekualdaketen antzeko baldintzetan egingo da.

Atxiloketa gauzatu duen potentziak, gerrako preso ebakuatuei edateko ura eta elikagaiak kopuru nahikoan emango dizkie, eta arropak eta beharrezko mediku-laguntza; beharrezko neurriak hartuko ditu presoen segurtasuna

su seguridad durante la evacuación y hará, lo antes posible, la lista de los prisioneros evacuados.

Si los prisioneros de guerra han de pasar, durante la evacuación, por campamentos de tránsito, su estancia allí será lo más corta posible.

Sección II: Internamiento de los prisioneros de guerra

Capítulo I: Generalidades

Artículo 21

La Potencia detenedora podrá internar a los prisioneros de guerra.

Podrá obligarlos a no alejarse más allá de cierta distancia del campamento donde estén internados o, si el campamento está cercado, a no salir de su recinto.

A reserva de las disposiciones del presente Convenio relativas a las sanciones penales y disciplinarias, estos prisioneros no podrán ser encerrados ni confinados más que cuando tal medida sea necesaria para la protección de su salud; en todo caso, tal situación no podrá prolongarse más de lo que las circunstancias requieran.

Los prisioneros de guerra podrán ser liberados parcial o totalmente dando su palabra o haciendo promesa, con tal de que lo permitan las leyes de la Potencia de que dependan; se tomará esta medida especialmente en el caso de que pueda contribuir a mejorar el estado de salud de los prisioneros.

Ningún prisionero será obligado a aceptar su libertad empeñando su palabra o su promesa.

Ya al comienzo de las hostilidades, cada una de las Partes en conflicto notificará a la Parte adversaria las leyes y los reglamentos en los que se permita

bermatzeko, ebakuazioa egiten den bitartean, eta ahalik eta azkarren aterako du ebakuatutako presoen zerrenda .

Gerrako presoak igarobidezko kanpamenduetatik pasa behar badira ebakuazioa egiten denean, bertako egonaldia ahalik eta laburrena izango da.

II. Atala: Gerrako presoen barneratzea

I. Kapituluak: Orokorrean

21. artikulua

Atxiloketa gauzatu duen potentziak gerrako presoak barneratu ahal izango ditu.

Zein kanpamenduetan barneraturik egon eta kanpamendu horrekiko distantzia jakin batetik harago ez urruntzera behartu daitezke edo, kanpamendua hesituta badago, eremu horretatik ez ateratzera.

Zigor- eta diziplina-zehapenei buruz Hitzarmen honetan diren xedapenei kalterik egin gabe, preso horiek ezin izango dira ez barneratu , ez konfinatu, hori beharrezkoa ez bada horien osasuna babesteko; edozein kasutan, egoera hori ezin izango da luzatu inguruabarrek eskatzen duten baino denbora gehiago.

Gerrako presoak oso-osorik edo zati batean askatuak izan daitezke horiek hitza ematen badute edo promesa egin, zein potentziaren menpe egon eta potentzia horren legeek hori ahalbidetzen duten heinean; neurri hori, batik bat, presoen osasun-egoera hobetu daitekeen kasuan hartuko da.

Presoak ezin dira behartu euren askatasuna onartzera euren hitza edo promesa ematearen trukean.

Liskarrak hasten direnean, gatazkan dagoen alderdi bakoitzak kontrako alderdiari jakinaraziko dio zein lege eta erregelamenduk utzi edo debekatzen

o se prohíba a sus súbditos aceptar la libertad empeñando palabra o promesa.

Los prisioneros liberados tras haber dado su palabra o hecho promesa, de conformidad con las leyes y los reglamentos así notificados, quedarán obligados por su honor a cumplir escrupulosamente, tanto para con la Potencia de la que dependan como para con la Potencia que los haya capturado, los compromisos contraídos.

En tales casos, la Potencia de la que dependan no podrá exigirles ni aceptar de ellos ningún servicio contrario a la palabra dada o a la promesa hecha.

Artículo 22

Los prisioneros de guerra no podrán ser internados más que en establecimientos situados en tierra firme y con todas las garantías de higiene y de salubridad; excepto en casos especiales justificados por el propio interés de los prisioneros, éstos no serán internados en penitenciarías.

Los prisioneros de guerra internados en zonas malsanas o cuyo clima les sea perjudicial serán trasladados, lo antes posible, a otro lugar donde el clima sea más favorable.

La Potencia detenedora agrupará a los prisioneros de guerra en campamentos o en secciones de campamentos teniendo en cuenta su nacionalidad, su idioma y sus costumbres, con tal de que estos prisioneros no sean separados de los prisioneros de guerra pertenecientes a las fuerzas armadas en las que estaban sirviendo cuando fueron capturados, a no ser que ellos estén de acuerdo.

Artículo 23

dien bere herritarrei askatasuna onartzea, hitza edo promesa ematearen truke.

Hitza eman edo promesa egin ondoren askatutako presoak, helburu horrekin jakinarazitako lege eta erregelamenduekin bat etorritz, euren ohorearengatik behartuta gelditzen dira, zein potentziaren menpe egon eta potentzia horren aurrean, eta harrapatu zituen potentziaren aurrean, hartutako konpromisoak zehatz-mehatz betetzera.

Halako kasuetan, zein potentziaren menpe egon eta potentzia horrek ezin izango die eskatu, ezta beraiegandik onartu ere, emandako hitza edo egindako promesaren aurkako zerbitzurik.

22. artikulua

Gerrako presoak bakar-bakarrik lehorrean kokatuta dauden establezimenduetan barnera daitezke eta higiene- eta osasun-berme guztiekin; presoen interes propioek justifikatzen dituzten egoera berezietan izan ezik, preso horiek ez dira espetxeetan barneratuko.

Gune osasungaitzetan barneratutako gerrako presoak, edo eurentzat klima kaltegarria duten guneetan, ahalik eta lasterren lekuz aldatuko dira beste leku batera, azken honen klima alderakoagoa dutela.

Atxiloketa gauzatu duen potentziak gerrako presoak kanpamenduetan edo kanpamenduetako ataletan taldekatuko ditu, euren naziokotasuna, hizkuntza eta euren ohiturak kontuan izanda, preso hauek harrapatuak izan ziren unean zein indar armatuetan egon eta indar armatu horretako gerrako presoengandik bereziak izan ez daitezten, beraiek horretarako ados daudenean izan ezik.

23. artikulua

Nunca un prisionero de guerra podrá ser enviado o retenido en regiones donde quede expuesto al fuego de la zona de combate, ni podrá utilizarse su presencia para proteger ciertos puntos o lugares contra los efectos de operaciones militares.

Los prisioneros de guerra dispondrán, en la misma medida que la población civil local, de refugios contra los bombardeos aéreos y otros peligros de guerra; exceptuados quienes participen en la protección de sus acantonamientos contra tales peligros, los prisioneros podrán acudir a los refugios lo más rápidamente posible tras la señal de alerta.

Les será asimismo aplicable cualquier otra medida de protección que se tome en favor de la población.

Las Potencias detenedoras se comunicarán recíprocamente, por mediación de las Potencias protectoras, todos los datos útiles sobre la situación geográfica de los campamentos de prisioneros de guerra.

Siempre que las consideraciones de índole militar lo permitan, se señalarán los campamentos de prisioneros de guerra, de día mediante las letras PG o PW colocadas de modo que puedan ser fácilmente vistas desde el aire; pero las Potencias interesadas podrán concertar otro modo de señalamiento.

Sólo los campamentos de prisioneros de guerra podrán ser señalados de esa manera.

Artículo 24

Los campamentos de tránsito o de clasificación permanentes serán acondicionados de manera semejante a la descrita en la presente Sección, y los prisioneros de guerra se beneficiarán allí del mismo régimen que en los otros campamentos.

Capítulo II: Alojamiento, alimentación

Gerrako preso bat ezin izango da inoiz bidali edo atxiki borroka guneko tiroketen arriskupean gelditzen den erregio batera; era berean, ezin izango da erabili haren presentzia leku edo une jakin batzuk eragiketa militarren ondorioetatik babesteko.

Gerrako presoek, aireko bonbardaketa eta gerrako beste arriskuen aurkako babeslekuak izango dituzte, tokiko biztanleria zibilak dituen neurri berberean; alde batera utzita arrisku horien aurka euren kantonamenduen babesean parte hartzen dutenak, presoak ahalik eta azkarren joan daitezke babeslekuetara, alerta seinalea izan eta gero.

Era berean, aplikagarri izango zaie biztanleriaren mesedetan hartutako beste edozein babes-neurri.

Atxiloketak gauzatu dituzten potentziak elkarri jakinaraziko diete, potentzia babesleen bitartez, gerrako presoek kanpamenduen kokapen geografikoari buruzko datu erabilgarri guztiak.

Izaera militarreko inguruabarrek halakoa ahalbidetzen dutenean, gerrako presoek kanpamenduak seinalatzatu egingo dira, egunez PG edo PW hizkien bidez, airetik erraz ikusteko moduan jarrita hala ere, potentzia interesdunek seinalatzeko beste modu batzuk erabaki ditzakete.

Bakarriz gerrako presoek kanpamenduak seinalatzatu daitezke modu horretara.
